

BIGA 3. ERREKREAZIOAK, KLIK ETA EGIN!



Gidoia: Romain Pujol
Marrazkiak: Vincent Caut
Itzulpena: Aintzane Atela
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2021
Koloroa. Paper-azala azal-hegalekin
64 orrialde. 17 x 21,5 cm. 10 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-18215-80-3

URRIAK 21EAN SALGAI

Misio berri bat

Caut eta Pujolek lortu dute berriro ere: "Bigak komiki berezia izaten jarraitzen du", adierazi du Juan Rodríguez kritikariak

Eskola berrira ezin hobeto egokitu eta bere ahalmenei buruz balio handiko irakaspenak atera ondoren, zer eskainiko digu Bigak hirugarren ale honetan? Abenturak, barreak eta asmo on ugari, nahiz eta, batzuetan, asmo horiek hondamena ekarri. Bigaren unibertsoa pertsonaia eta pasadizo berriekin aberasturik dator, baina Biga betikoa da: beti bezain gozozale eta baldar, baina, aldi berean, beti bezain eskuzabal eta umil. Hartu motxila, esplorazioan goaz-eta Bigarekin!

"Romain Pujolen gidoiek bete-betean asmatzen dute, eta Vincent Cauten marrazki atseginak are gehiago nabarmentzen dituzte gidoiak. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako ikasleek pozik jarraituko diote heroi bihurri eta maitagarri berri honen arrastoari".

BDGest'

"Bigak komiki berezia izaten jarraitzen du!".

Juan Rodríguez, *Cómic para todos*

""Bigak zer erakutsi asko du. Ilustrazio biribilak, xehetasunez beteak".

Evamétrica

"Bilduma dibertigarria oso".

Mispequeslectores



ROMAIN PUJOL (Albi, 1989) eskola garaiaz gero ari da bere unibertso propioa sortzen eta irakasleen eta eskolakideen karikaturak eskuetan erortzen zitzaion edozein paperetan marrazten. 2006an bigarren saria eskuratu zuen "Teenagers" kategorian Colomierseko komiki lehiaketan. Hura izan zen bere grina ogibide bihurtu behar zuelako baieztapena. 2007an, batxilergoa egiten ari zen bitartean, bere pertsonaia zoro-zoroak lantzen zituen blog bat sortu zuen. Arte Aplikatuaren lizentzia lortu zuen 2011n, eta hala lasaitu zituen gurasoak. Bera eta Thitaume, Tolosako gidoigile bat, aukeratu zituzten Rabbids bideo-jokoa komikira egokitzeko. 2013an, Milan argitaletxeak gazteentzako pertsonaia berriak sortzea proposatu zion eta proposamen hura *Avni (Biga)* saila bihurtu zen azkenean, Vincent Cautek marraztua eta *Toboggan* aldizkarian aldezturik argitaratua (400.000tik gora harpidedun). Thitaume bere lankidearekin elkarlanean gazteentzako beste sail baten gidioan lantzen ari da: *Balez et Malina*.



VINCENT CAUT (Melun, 1991) 13 urterekin ustekabeen komiki-blog batekin topo egin zuenean hasi zen komigintzan. Zaletasunez eta dibertitzeko, interneten komikia lantzeko abenturari ekitea erabaki zuen. 2009an bigarren saria eskuratu zuen Angulemako jaialdiko Révélation Blog lehiaketan, eta horri esker bere lehen albuma argitaratu ahal izan zuen, *Le Trésor de l'Île Mokoko* ("Mokoko uharterako altxorra") Diantre! argitaletxearentzat. Vincent Caut arte aplikatuaren ikasketak egiten ari da gaur egun eta gazteentzako ilustrazioan dihardu azkenaldi honetan (*Okapi*, *Phosphore*, *Makaka*, *La Boîte à bulles...*). *Avni (Biga)* sailaz gainera, marraztu ditu baita ere Mes 100 premiers mots des animaux ("Animalien nire lehen 100 hitzak") eta *Où es-tu, Léopold?* ("Non zaude, Léopold?") saileko hiru liburuki.

Sail bereko beste liburuak euskaraz:




Biga 1
Benetan identifikatu
gabeko animalia
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-17575-85-4



Biga 2
Super laguna!
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-18215-42-1

BIGA DUT IZENA.



SUPERBOTERE HARRIGARRIAK DITUEN MUTIKO BAT NAIZ.



ADIBIDEZ, GORPUTZA LUZA DEZAKET, NAHI ADINA.



IKUSEZIN ERE BIHUR NAITEKE.





EDONOREN ITXURA HAR DEZAKET.



HAINBAT GAUZA IGAR DITZAKET NIRE SUPERUSAIMENARI ESKER.





AMAIA